Etxean konposta egiteko gida

Gida honek konposta egiteko prozesua ulertu eta etxean modu errazean eta eraginkorrean egiteko behar dituzun gako guztiak emango dizkizu.



Hernaniko Udala

Hondakinen bulegoa
Gudarien plaza 1, 4. solairua, Hernani, 20120
hondakinak@hernani.eus
www.hernani.eus

GIPUZKOA
Foru Aldundia · Diputación Foral



Konposta: definizioa	1
Konpostaje prozesua	2
Mikroorganismoak eta makroorganismoak	6
Etxeko konpostajea pausuz pausu	10
Muntaia	10
Martxan jartzea	12
Material konpostagarriak	14
Mantentze-lanak	15
Konpost heldua ateratzea	16
Zer ez dugu egin behar?	17
Konpostaren erabilera	18
Ohiko arazoak, esanahia eta konponbidea	20
Ager daitezkeen bizidunak, esanahia eta gomendioak	21

Konposta: definizioa

Gaika bildutako hondakin biodegradagarrien tratamendu biologiko aerobioaren ondorioz lortutako ongarri organikoa da.

ONURAK

- Ura atxikitzeko gaitasuna du
- Pestizidak ordezkatzea
- Materia organikoa berreskuratzea, gehitzea eta lurrari elikagaiak gehitzea
- Ongarri mineralak ordezkatzea



- Lurzoruen erresilientzia
- Atmosferara doan CO_2-aren erretentzioa lurrean
- Lurzoruaren lanketa errazten du
- Onura ekonomikoak

Zer da konpostajea?

Jatorrian bereizitako material biodegradagarri organikoen transformazio biologiko aerobikoaren eta termofiloaren prozesu kontrolatua da. Horren bidez, konposta eskuratzen da; hots, mineraletan, elikagaietan eta mikroorganismoetan aberatsa den ongarri naturala.

Prozesu biologiko honek elikagaien zikloa ixten du, materia organikoa degradatu eta landareek beharrezkoak dituzten gai mineralak haien eskura jartzen ditu.



2 Konpostaje prozesua



Konpostajea prozesu biologiko aerobio bat da (oxigenoa duena, alegia); prozesu horrek, aireztapen, hezetasun eta tenperatura kontrolatuen bidez, hondakin organiko degradagarriak konpost izeneko material egonkor eta higienizatu bihurtzen ditu.

Deskonposizio-prozesu hori mikroorganismoen jardueran oinarritzen da; hala nola, onddoetan eta bakterioetan. Horien ondorioz, beroa askatzen da. Prozesuaren iraupena 3-6 hilabete artekoa izan daiteke.


Prozesuan zehar sortutako tenperaturaren arabera lau etapa nagusi bereizten dira:

PROZESUAREN PARAMETROAK

- Tenperatura
- Hezetasuna
- pH-a
- Aireztapena
- Partikulen tamaina
- C/N eta C/P erlazioak: materia berdea (nitrogenotan aberatsa) eta materia marroia edo egituratzailea (karbonoan aberatsa)

IZENA	Mesofiloa	Termofiloa	Hozte fasea	Heltze fasea
ITXURA				
IRAUPENA	2-5 egun	1-3 aste	2-5 aste	3-6 aste

Faseak



1. Fase Mesofiloa: Hondakinak konpostagailuan bota eta 45 ºC-ko tenperaturara iristen diren arteko denbora-tartea da. Materiala onddo eta bakterioen jarduraren ondorioz deskonposatzen hasten da. Konposatu disolbagarriak deskonposatzen dira; hala nola, azukreak. Horrek azido organikoak sortzen ditu; ondorioz, pH-a jaitsi egin daiteke. Fase honek gutxi irauten du.

2. Fase Termofiloa:
Mikroorganismoen jarduerak beroa sortzen du, eta tenperatura 60-70 ºC-ra igotzen da. Tenperatura horrek ingurunea higienizatzen du, larbak eta jatorri fekaleko bakterioak eta kutsatzaileak suntsitzen baititu, *Eschericha coli* eta *Salmonella spp*, esate baterako. Era berean, 55 °C-tik gora helmintoen kisteak eta arrautzak, onddo fitopatogenoen esporak eta sastraken haziak ezabatzen dira. Fase honetan, karbono (C) iturri konplexuenen degradazioa gertatzen da, zelulosa eta lignina kasu. Fase honetako mikroorganismoek nitrogenoa amoniako bihurtzen dute; eta, beraz, inguruneko pH-a igo egiten da. Fase honek egunak edo hilabeteak iraun dezake.

3. Hozte fasea:
Karbono-iturriak agortuta, eta bereziki nitrogenoa, tenperatura 40-45 °C-ra jaisten da berriro. Fase honetan, Zelulosa taldeko polimeroen degradazioak jarraitzen du, eta begi hutsez ikus daitezkeen onddo batzuk agertzen dira. pH-a alkalinoa da fase honetan. Hozte-fase honek hainbat aste behar ditu, eta heltze-fasearekin nahastu daiteke.



4. Heltze fasea:
Hondakin piloa giro-tenperaturara iristen denean gertatzen da. Fase honetan jarduten duten organismoak ornogabeak dira funtsean: kukurutxa eta zizareak, besteak beste. Deskonposizioa amaitzeaz eta produktu egonkor bat lortzeaz arduratzen direnak.

Prozesua baldintzatzen duten zenbait faktore



1) OXIGENOA (% 15-21)

Organismoek oxigenoa behar dute arnasteko.

Oxigenoa material guztira heltzea garrantzitsua da; izan ere, oxigenorik heldu ezean, anaerobiosia gertatzen da, eta, ondorioz, prozesua moteldu egiten da eta usain txarrak sortarazten dira. Hori dela eta, konpostagailuko materiala aldizka irauli beharko da. Hartzidura fasean dagoen materiala maizago eta biziago irauli behar da, eta heltze fasean dagoena ez da hain maiz irauli behar.

2) HEZETASUNA (% 50-60)

Prozesuaren eraginkortasun handienerako hezetasun optimoa % 50-60 bitartekoa da, pisuari dagokionez.

% 40ko hezetasunetik behera, mikroorganismoen jarduera metabolikoa murrizten da eta deskonposaketa prozesua moteltzen da.

% 60ko hezetasunetik gora, urak partikulen arteko poroak saturatu eta zaila da oxigenoa zabaltzea, emaitza anaerobiosia.

3) TENPERATURA (45 ºC-60 ºC)

Tenperatura-igoera mikroorganismoen jarduerak eragindako energia-askapenaren ondorioz gertatzen da.

Gehiegizko tenperatura kontrolatu egin behar da, 65 ºC-tik gorako tenperaturek mikrobio-jarduera eragotzi baitezakete.

Tenperaturaren igoerak konpostatzen ari diren materialen higienizazioan laguntzen du.

4) pH

PH-a materia organikoa degradatzen duen jarduera biologikoa baldintza dezakeen parametro bat da, eta une bakoitzean dauden mikrobio-populazioak hauta ditzake.

Bakterioek nahiago dute neutraltasunetik hurbil dagoen pH-a, 6-7,5, onddoak, berriz, hobeto garatzen dira ingurune azidoan, nahiz eta pH tarte handiagoa onartzen duten (5-8).

Konpostajea pH-ko tarte zabal baten barruan (3-11) garatu daitekeen arren, balio optimotzat hartzen dira 5,5 eta 8,0 artekoak.

5) C:N ERLAZIOA

Konpostaren nahasketa, bilakaera eta heldutasuna kontrolatzeko gehien erabiltzen den parametroa da.

Karbonoa (C) eta nitrogenoa (N) mikroorganismoak elikatzeko mugatzaileak dira.

C-k energia ematen du eta zelula-egitura da (>% 50).

N proteinen funtsezko osagaia da. N baxuarekin mikroorganismoak ez dira garatzen. N altuarekin, zati bat galdu egiten da lurrunketa bidez.

C/N erlazio optimoa 30 ingurukoa da.

6) PARTIKULEN TAMAINA (1-5 cm)

Hondakinen artean “zati handi” ugari baldin badago, materialen deskonposaketa anaerobikoa (O_2 gabe alegia) gailenduko da eta, ondorioz, usainak eta bestelako arazoak sortu daitezke.

Hasiera-hasieratik hondakinak ongi zatituz gero, degradazio- eta deskonposizio-prozesua erraztuko da, mikrobio-erasoaren eraginpean dagoen azalera handiagoa delako.

Dena den, hondakin zatiak oso txikiak direnean, multzoa trinkotu egiten da eta, ondorioz, urak eta aireak kanpoaldearekin duten interakzioa trabatuko da.


Hortaz, konpostagailuan botatzen diren materialen neurri egokiena 1 eta 5 cm artekoa da.


Mikroorganismoak eta makroorganismoak

KONPOSTAJEAN PARTE HARTZEN DUTEN IZAKI BIZIDUNAK

Konpostajean askotariko faunak hartzen du parte; hortaz, animalia-jarduera asko ikustea seinale ona da.


Aurki dezakegun fauna guztiak ez du funtzio aktiborik konpostajean, batzuk konpost piloa eta konpostagailua elikatzeko, babesteko edo hazteko leku gisa erabiliko dute, baina prozesuan aktiboki parte hartu gabe. Fauna hori ez da kaltegarria pertsonentzat; gehienez ere, ezatseginak izan daitezke. Konpostagailuan aurki ditzakegun izaki bizidunak honako mikro eta makroorganismo hauek dira:





HARIZPI-FORMAKO ONDDOAK (LIZUNAK-MOHOAK)

Materia organikoaren degradazio aerobikoan parte hartzen dute, gaitasun lignozelulolitiko handia dute. Era berean, lurrean dagoen mikrobiota arruntaren parte dira, konposatu organiko konplexuen eta konposatu ez-organikoen degradazio- eta disolbatze-prozesuetan inplikatuta daude.





BAKTERIOAK

Konpostan dauden mikroorganismo ugarienak (% 80-% 90) eta esanguratsuenak bakterioak dira. Bakterioek karbonoa eta nitrogenoa landareentzako erabilgarri den mantenugai bihurtzen dituzte, nitrogenoa, fosforoa eta magnesioa barne.

Bakterioen artean talde aipagarrienetako bat **Aktinomizetoen** taldea da (Gram positibo bakterio taldea). Horiek paper garrantzitsua dute konpostajean. Konposatu organiko konplexuak (zelulosa, lignina, etab.) degradatzeko gaitasun entzimatikoa dute eta, hala, paperezko produktuak deskonposatzeko gai dira, egunkariak eta kartoia-azalak, besteak beste. Baita deskonposatzen zailak diren beste molekula handi batzuk ere, hala nola lignina eta zelulosa (egur txirbilaren kasuan adib.). Bakterio horien jarduerak “konpostaren usain atsegina eta lurtsua” sortzen du. Konpostajeak hartzen dituen tenperatura altuetan hazteko gai dira.

Aktinomizetoen funtzio nagusiak honako hauek dira:

Materia organikoa xehatzen dute
Horrekin mantenugaiak (karbonoa, amoniakoa eta nitrogenoa) landareen sustraientzako eskuragarri eta asimilagarri bihurtzen dituzte.

Landareak kaltetu ditzaketen mikroorganismoen ugaritzea murrizten dute populazioa kontrolatzen duten substantzia antibiotikoak sortzen dituzte horretarako.

Lurzoruaren oreka naturala mantentzen laguntzen dute.



Etxeko konpostajea pausuz pausu

KOKAPENA

- **Leku laua aukeratu, maldan ez jarri.**
- **Etxetik gertu kokatu.**
- **Eguzkiak gehiegi jotzen ez duen tokia aukeratu, posible bada udan itzala egingo dion zuhaitz baten azpian.**
- **Lurzoruarekin kontaktu zuzenean egon behar du, asfalto gainean ez jarri.**
- **Ibai inguruan bizi bazara gomendagarria da karraskarien aurkako sareta metalikoa ezartzea lurzoruaren eta konpostagailuaren artean. Saretaren zuloaren tamaina 1,3 mm edo txikiagoa izatea komeni da.**

MUNTAIA

1) Lau hormak lurrean zabaldu, bata bestearen ondoan kokatu eta elkarri lotu hagaxken bidez.



2) Behin hormak loturik daudela, lurretik altxatu eta lauki forma eman konpostagailuari.



3) Konpostagailua ixteko azken hagaxka sartu falta den zuloan. Ondoren tapa jarri.



BALIABIDEAK

Konposta egiteko honako baliabide hauek eskuratzea gomendatzen da:

- **Konpostagailua.**
- **Aireztagailua (iraultzailea/ sardea).**
- **Sukaldeko hondarrak bereizita jasotzeko edukiontzia.**
- **Karraskarien aurkako sareta herdoilgaitza. Saretaren zuloaren tamaina 1,3 mm.**
- **Konpost heldua bahetzeko bahea (edo fruta kutxa batek balio du).**
- **Hezetasun falta duenean ureztatzeko, ureztagailua.**
- **Materia lehorra edo egituratzailea (orbela, kimaketa hondarrak, lastoa, etab.**



MARTXAN JARTZEA

Etxeko janari hondarrak konpostagailura botatzen hasi aurretik, komenigarria da materia lehorrezko geruza bat jartzea (hostoak, lastoa, egur txirbila, etab.). Modu horretan, hondar organikoaren deskonposaketan sortu daitezkeen lixibiatuak xurgatuko ditu materia lehorrak; horrez gain, hondar organikoa materia marroiarekin ondo nahastuta egongo da prozesuaren hasieratik eta deskonposaketa prozesuaren beharrizanak bermatuko dira.

Behin materia lehorrezko "ohea" ezarrita, sukaldeko hondar organiko freskoak botako ditugu. Lehehengo hondarrak botatzerakoan komeni da konpostagailuan sakabanatuta ez botatzea; horren ordez, piloan edo montoian metatzea aholkatzen da; hala, materia organikoaren hondar organikoen hezetasuna mantendu eta tenperatura hartzen hasiko baita.

Zimaurra edota konpost freskoa eskura izanez gero, konpostagailura gehitu genezake, konpostaje prozesuaren hasiera suspertu eta azkartzeko.

Konpostagailuan gehitzen diren hondar organikoak bi motatakoak izan behar dira: sukaldean sortzen den gai freskoa (edo materia berdea izenekoa) eta lorategian nahiz naturan eskuratzen den gai lehorra (edo materia marroia). Konpostaje prozesuak arazorik ez emateko bi materia hauek bota eta tartekatu behar ditugu konpostagailuan.

Gai freskoa eta gai lehorra 3:1 proportzioan gehitzea gomendatzen da; hau da, gai freskoz beteriko kubo bat konpostagailura botatzen den bakoitzean, kubo horren herena gai lehorrarekin ere gehitu behar da konpostagailuan eta biak ondo nahastu behar dira. Bi motako materiak nahastuz, nahasketa horretan porositatea egotea ahalbidetzen da eta modu horretan deskonposaketa aerobikoa gertatzen da.

KARBONOAREN ETA NITROGENOAREN ARTEKO ERLAZIOA (C:N)





MATERIAL KONPOSTAGARRIAK

GAI FRESKOAK (=MATERIA BERDEA edo HEZEA)

Nitrogenoa gehitzen diote nahasketari
Azkar prozesatzen dira
Konprimitzeko errazak dira
Hezetasun handia dute

GAI LEHORRAK (=MATERIA MARROIA edo EGITURATZAILEA)

Karbonoa gehitzen diote nahasketari
Poliki-poliki prozesatzen dira
Egitura eta porositatea ematen diote nahasketari
Hezetasun txikia dute

MATERIAL KONPOSTAGARRIAK: ADIBIDEAK

GAI FRESKOAK (=MATERIA BERDEA edo HEZEA)

SUKALDEKOAK ETA LORATEGIKOAK

- Fruta eta barazkiak gordinak nahiz sukaldaturikoak
- Arraina eta haragia
- Animalia jatorriko janari elaboratuak (saltxitxak, odolostea...)
- Arrautza oskolak
- Egositako arrozak eta pastak
- Jogurt iraungia
- Kafe hondar eta iragazkiak (paperezkoak diren kasuetan soilik)
- Infusioen hondarrak eta poltsatxoak grapa kendu ondoren
- Ogia
- Gazta
- Loreak
- Lorontzietako landareak, baina beti zatituta
- Belarra



GAI LEHORRAK (=MATERIA MARROIA edo EGITURATZAILEA)

- Txirbila
- Hosto lehorrak
- Adarrak edo inausketa hondarrak
- Lastoa
- Fruitu lehorren oskolak



MANTENTZE-LANAK

AIREZTATZEA:

Astean behin, gutxienez, konpostagailu barruko hondar organikoak ondo nahastu.

UREZTATZEA:

Soilik konpostagailua lehor dagoenean. Normalean ez da ureztatu beharko.

UKABILAREN FROGA

GEHIEGIZKO HEZETASUNA: ukabila estutzean ur piloa askatzen da eta ukabila irekitzean plastilina bailitzan hartzen du ukabilaren forma.

LEHORREGI: ukabila estutzean ez du urik askatzen eta ukabila irekitzean hondarra bailitzan askatzen dira partikulak.

HEZETASUN EGOKIA: ukabila estutzean ez du apenas urik askatzen eta ukabila irekitzean materialak bere itxura mantentzen du.



KONPOST HELDUA ATERATZEA

GOMENDIOAK

- **Konpostagailutik ateratako konposta landareentzat erabili aurretik, eguzkitan lehortzen utzi. Hala, konpostean egon ohi diren makroorganismo gehienek alde egingo dute, eta ez dizkigute gure landareak jango konposta aplikatzean.**
- **Hezur, txirla edota tamaina handiko adar zatiak baditu konpostak, bahetu daiteke landareetan aplikatu aurretik. Galbahe profesionalik izan ezean, plastikozko fruta kutxa bat erabili liteke konposta bahetzeko.**

Etxeko konpostagailuetan, ohikoena, konposta heldua urtean behin ateratzea da.

Konposta ateratzeko, udaberria da gomendagarriena, baratza eta lorategia ongarritzeko garaia da-eta.

Konpostagailuko materiala egina dagoen edo oraindik deskonposaketa fasean dagoen jakiteko, konpostaren itxurari eta tenperaturari erreparatu ahal diogu. Konpost helduak honako ezaugarri hauek izan behar ditu:

1) Ez dira janari hondarrak bereiztuko.

2) Kolore marroi iluna izango du, lurraren antzeko testurarekin.

3) Usaina: ez du usain txarrik eduki behar, basoko lurraren usaina baizik.

4) Ez da epel edo bero egon behar, bestela oraindik konpostatzen ari dela esan nahi du.

5) Lur zizareak agertzen badira seinale ona da.



ZER EZ DUGU EGIN BEHAR?

1) JANARI HONDARRAK BISTAN UTZI

Janari hondarrak ondo estali behar dira; estaltzeko material egituratzailea erabili.

2) TAMAINA HANDIKO GAI FRESKOAK BOTA

Janari hondarrak zati ez oso handitan botatzea komeni da.

3) MATERIAL DESEGOKIAK BOTA

Jogurten tapak, jogurt ontziak, frutaren pegatinak, plastikozko ontzi eta bilgarriak, poltsa konpostagarriak, haurren toallitak, etab.





ETA ZERGATIK?

- **Janari hondarrak bistan uzten ditugunean, fruta-euli eta euliak asko ugaritzen dira erabiltzaileentzako arazo bilakatu arte.**
- **Tamaina handiko janari hondarrak deskonposatzeko denbora gehiago behar dute eta usain txarrak sortu daitezke deskonposaketak irauten duen bitartean.**
- **Material desegokiek mantentze eta bahetze lanak zailtzen dituzte, baita konpostaren kalitatea murriztu ere.**

18 KONPOSTAREN ERABILERA

KONPOST TEA

Konpost tea ongarri likidoa da, eta konposta eta ura ditu osagai. Izenak adierazten duen bezala, konposta poltsa batean bustiz lortzen da, urez betetako ontzi baten barruan. Prozesu horretan ezinbestekoa da airea egotea, mikroorganismo aerobikoen ugalketa sustatzeko. Landareei hosto-ongarri gisa eta ureztatzeko aplikatzen zaie, lurzoruaren jarduera biologikoa areagotzeko.

NOLA PRESTATU?

- **Tea prestatzeko ura eta konposta behar dira. Proportzioa: 5 parte ur 1'5 parte konpost bakoitzeko**
- **Tea prestatzeko klororik gabeko ura eskuratu, euri ura adibidez. Iturriko ura erabiltzen bada, 2 egunez sedimentatzen utzi kloroa lurrundu arte; kloroak mikroorganismoak kaltetzen ditu.**
- **Konposta oihalezko poltsa batean jarri.**
- **Ondoren kloro gabeko urez beteriko ontzi batean sartu eta leku ilun batean kokatu.**
- **Ondorengo 4 egunetan, egurrezko makila batekin mugituko dugu oihalezko poltsatxoa eta tea, ondo oxigena dadin.**
- **Landareen hostoetan nahiz ureztaketa ur bezala erabili daiteke konpost tea.**

Konpostaren erabilera dosia, konpostaren heltze fasea, lurzoruaren ezaugarriak eta landare motaren beharren araberakoa izango da. Ondorengo taulan, konpost helduaren erabilera batzuk eta dosi orientagarriak deskribatzen dira:

ERABILERA	DOSIA	APLIKAZIOA
Arau orokor gisa	3 kg/m² (=5 mm-ko geruza)	Urtero edo bi urtean behin, udazkenean edo udaberrian, azalean lurperatuz (5-15 cm) eta lurrarekin ondo nahastuta.
Hazitegiak	Konpost heldua substratu unibertsalarekin edo biolurrarekin nahastu 1:3 bolumeneko proportzioan	Landaketa berri bakoitzean lurrarekin ondo nahastuta.
Loreontzi (Loreak)	Konpost heldua substratu unibertsalarekin edo biolurrarekin nahastu 1:4 bolumeneko proportzioan. Mantenurako ongarritzeari dagokionez, landare bakoitzari hilean 25 gr konpost bota.	Landaketa berri bakoitzean lurrarekin ondo nahastuta.
Baratzea	Erdizka eskatzen duten landareak eta gutxi eskatzen dutenak 1-3 kg/m² Landare jatunak 3-6 kg/m²	• **Asko eskatzen duten landareak:** zerbak, alkatxofak, kardua, kalabazina, kalabaza, artoa, patata, pepinoa, piperra, tomatea, sandia, meloia, apioa, espinakak, azak, porruak. • **Erdizka eskatzen duten landareak:** eskarolak, letxugak, azenarioak, erremolatxa, babarrunak, ilarrak, zainzuriak, perrexila. • G**utxi eskatzen duten landareak:** badira konposta eskatzen ez duten landareak, eta konpost freskoa aplikatuz gero kalte egin diezaieketenak. Landare hauek dira: baratxuriak, baba, berroak, bruselako azak, kanonigoak, endibiak, arbia.
Fruta-arbolak	Mantenurako ongarritzeari dagokionez, zuhaitz bakoitzari 2-5 kg gehitu, zuhaitzaren tamainaren arabera.	Urtean bi aldiz, enborraren oinarriaren inguruan.
Belarra	6 kg/m²	Erein aurretik 3 kg/m² konpost bota. Emaitzarik onenak: konposta silizezko hareaz nahastuta, %50eko proportzioan.

Ohiko arazoak, esanahia eta konponbidea

ARAZOA	ESANAHIA	KONPONBIDEA
USAIN TXARRA (ustel-usaina)	Deskonposaketa anaerobikoa ari da gertatzen (usteltzea); hau da, oxigenorik gabe. Egituratzaile gutxi edo batere ez gehitu izanaren ondorioa da. Hezetasun gehiegi dauka, eta maiztasun gutxirekin aireztatzen da.	Oxigenoa behar du. Horretarako, egituratzaile gehiago bota eta ondo nahastu; materia freskoa eta materia lehorra tartekaturik gera daitezen. Iraultzeko maiztasuna handitu.
AMONIAKO USAINA	Belar berde gehiegi eta hosto gutxi gehitu da. Oxigeno falta dago.	Materia lehorra gehitu eta ondo nahastu.
EZ DA BEROTZEN	Konpostaje prozesua inaktibo dago; izan daiteke konposta egina dagoelako edota konpostaren parametroak egoki mantendu ez direlako.	Hezetasuna eta aireztapena kontrolatu eta, beharren arabera, urez busti eta ondo nahastu behar da konpostagailu barruko materia. Zimaur freskoa gehitzeak ere laguntzen du konpostaje prozesua azeleratzen.
HEZETASUN HANDIA	Materia berde asko eta materia lehor gutxi gehitu dira, ez da proportzioa bermatu.	Egun eguzkitsuetan konpostagailuaren tapa irekita utzi, egituratzaile gehiago gehitu eta ondo nahastu hezetasun egokia berreskuratu arte.
KONPOST LEHORRA	Materia marroi asko eta materia berde gutxi gehitu dira, ez da proportzioa bermatu.	Oso lehorra dagoenean ureztatu konpost piloa (euri-urarekin edo ureztagailuarekin) eta ondo nahastu, oreka lortu arte.

Ager daitezkeen bizidunak, esanahia eta gomendioak

BIZIDUNAK	ESANAHIA	GOMENDIOAK
SAGUAK	Konpostagailua ez da apenas iraultzen eta lehor xamar dago.	Konpostagailua ureztatu eta materila irauli, alde egin dezaten.
ARRATOIAK	Usainak erakarri ditu.	Usainik ez izateko materia berdea materia lehorrarekin ondo nahastu. Ondoren, janari hondar guztiak ondo estali egituratzaileaz. Ez utzi sekula janari hondarrak begi bistan. Bestalde, konpostagaiu azpian, karraskarien aurkako sareta metalikoa ere jartzea gomendatzen da.
EULIAK	Materia organikoa deskonposatzen laguntzen dute. Deskonposizioan dagoen materia organiko freskoa gustatzen zaie, batez ere, azukre ugari duten fruta eta janari hondarrak. Konpostagailuko janari hondarrak bistan uzten direnean agertzen dira; gehiegizko hezetasunaren adierazle dira. Emeek deskonposizioan dagoen materia organikoa aurkitzen dutenean arrautzak jartzen dituzte bertan, ingurune azido eta hezea izateagatik. Euliak ugariagoak dira hilabete beroetan (udaberrian).	Janari hondarrak beti estalita utzi behar dira. Horretarako materia lehorra erabiltzea komeni da. Belar berdez estalita ere saihesten dira euliak. Ez dute ziztadarik eragiten, eta ez dira gaixotasunen bektore. Dena den, gehiegi agertzen direnean ezatseginak izan daitezke erabiltzailearentzat. Euliei aurrea hartzeko, oso garrantzitsua da behar bezala aireztatzea eta nahastea. Konpostagailuaren gaineko azken geruzak material lehorrekoa izan behar du beti; horrela, ez dira deskonposizioan dagoen frutara helduko, eta oso gutxi egongo dira.
SOLDADU EULIA ETA LARBAK	Larbak oso jatunak dira. Deskonposizioan dagoen edozein material organikoz elikatzen dira. Mota guztietako hondakin organikoak deskonposatzeko gaitasun handia dute.	Haien presentzia onuragarria da konpostaje-prozesuan. Desatsegina izan daiteke, baina konpostajerako lan ona egiten ari direla pentsatu behar dugu.

BIZIDUNAK	ESANAHIA	GOMENDIOAK
ISOPODOA	Mota guztietako hondakin organikoak kontsumitzen dituzte, bai animalia- bai landare-hondakinak ere.	Konpostajerako onuragarriak. Pertsonei ere ez diete arazorik sortzen. Zenbat eta gehiago izan, hobe.
BARRASKILO ETA BAREAK	Era guztietako materia organikoz eta deskonposizioan dauden animalia nahiz landarez elikatzen dira. Prozesuaren etapa aurreratuetan ez dira agertuko.	Ez dira konpostaje-prozesuko arazo bat, baina arazoak sor ditzakete lorategiko edo baratzeko landareetan. Konpostagailuaren hormetara atxikitzen dira hezetasun handia dagoenean, eta, beraz, eskuz kendu ahal izango ditugu, zailtasunik gabe.
INURRI ASKO DAUDE	Inurriak konpostagailua oso lehor dagoenean edota nahasketa maiztasunez irauli gabe dagoenean agertzen dira. Konpostagailuan ager daitezke inurritegia instalatzeko.	Ureztatu eta ondo nahastu, berehala desagertuko dira. Behin konpostagailuan instalatuta daudenean, komeni da eduki guztia iraultzea eta hondakin hezeak gehitzea. Normalena da edukia heze dagoenean eta nahasten denean desagertzea. Inurritegiak konpostagailuaren azalera osoa hartzen duen muturreko kasuetan, enbarazu egin dezakete, eta, beraz, konpostagailua lekuz aldatzea gomendatzen da.
KAKALARDOA ETA LARBAK	Egur hilez elikatzen dira.	Konpostajerako onuragarriak dira, izaki bizidun askok deskonposatu ezin dituzten materialak txikitzen eta deskonposatzen baitituzte. Ez dira asko agertzen. Badira tamaina handiko larba batzuk (2-5 cm) atentzioa eman dezaketenak, baina ez diete gizakiei arazo zuzenik sortzen.
LUR-ZIZAREA	Konpostagailuko materia organikoz elikatzen dira eta konposta aireztatzen laguntzen dute. Konpostaje prozesuaren heltze fasean ugariak izan ohi dira eta materia organikoa humus bihurtzen dute.	Konpostajerako onuragarriak dira. Pertsonei ere ez diete arazorik sortzen. Zenbat eta gehiago izan, hobeto.